



Arartekoaren 2017R-1195-16 Ebazpena, 2017ko apirilaren 10ekoa. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio buruko osasuneko zentroaren aldaketa ukatu zuen erabaki bat berrikus dezala.

Aurrekariak

Arartekoaren aurrean egindako kexa honen arrazoia buruko osasuneko zentroa (BOZ) aldatzeko eskaera baten ukapena izan da. Ukitutako pertsonak hurbiltasun handiagoa nahi izan du, lekualdatzeko eskatu zuen zentroa haren egoitzaren aurrean dago eta. Eskaera ez da berez laguntzari lotutako arrazoiengatik egin.

Ekainaren 21eko 147/2015 Dekretuak, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen eskubideei eta betebeharrei buruzko adierazpena onartzen duenak, 12. artikuluan xedatzen du erabiltzaileek hasieran esleitutako baliabideetan aldaketak eskatu ahal dituztela. Artikulu horren arabera, aukera dago profesional mediku orokorra eta pediatria hautatzeko, bai eta lehen mailako arretako zentroa ere eta, hala badagokio, ospitalea hautatzeko.

Bere informazio-eskaeran, erakunde honek pentsatu zuen sistema publikoa aukera hori eskaintzera eraman duen jarrera buruko osasuneko zentroetara ere heda daitekeela. Arartekoak ikuspegi horretatik egin zuen eskaerari erantzunez, Osakidetzak azaldu du egindako baliabideen zonakatzeak asmoa haur eta gazteen buruko osasunean espezializatuta dauden zentroek pazienteei ahalik eta arreta onena ematen dietela ziurtatzea duela xede, zentrook propioak zein itunduak izan, eta artatutako pazienteen kupoak parekatzen dituela.

Zonakatze horretan jasotako osasun-antolaketako irizpideen arabera, ezin zitzaion espediente honek xede duen eskaerari arretarik eman.

Osakidetzaren aburuz, zentro-aldaketa bat egoitzatik hurbil egoteagatik soilik onestea antolaketan desoreka sor lezakeen aurrekaria izango litzateke. Azaldu duenez, aldatzeko eskaerak salbuespenez hartzen dira kontuan, arrazoia justifikatuta, lehen mailako arretarekiko zein hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuekiko koordinazio hobea bermatu eta ziurtatzeko helburuarekin. Aldaketa-eskaerak zeharo arbuatzen ez direla erakusteko, Osakidetzaren txostenak 2016an onartutako zentro-aldaketei buruzko datuak eman zituen (12 onarpen eta 2 ukapen).





Osakidetzaren erantzunak ondorioztatu du eskatutakoa bezalako zentro-aldaketek laguntzarekin zerikusia duten alderdietan oinarrituta egon behar dutela eta arrazoi horiek espezialista-aldaketa baten edo bigarren iritzi baten bidez ere bideratu ahal direla, baina ezin dela egoitzaren hurbiltasunari lotutako inguruabarretan oinarritu.

Ukapena, funtsean, honetan oinarritzen da: Bizkaian arreta mentalerako egindako plangintzak ez du barne hartzen pertsona horri orain eskatu duen BOZn arreta ematea. Haren ustez, horrek ez dio ekainaren 21eko 147/2015 Dekretuan jasotako eskubideen edukiari eragiten.

Erakunde honek informazio osagarria eskatu zuen jakiteko nola eragingo liokeen eskatutako aldaketaren onarpenak antolaketari; izan ere, plangintza-irizpideak soilik alegatzeak ez luke, berez, kexa honek xede duen eskaeraren modukoak ukatzea eragin behar. Hurbiltasunari dagokionez, egia da ez dagoela egoitza bakoitzetik hurbil dagoen zerbitzu publiko bat edukitzeko eskubiderik, ezinezkoa baita nahi hori gauzatzea. Dena den, eskatutako aldaketa haren egoitzaren aurrean dagoen zentro baterakoa denean, arrazoizkoa dirudi interesdunak jakin nahi izateak zergatik nahasiko litzatekeen plangintza haren eskaera onetsiz gero.

Eskaera berri horri erantzunez, Osakidetzak errepikatu du, haren iritzi, 147/2015 Dekretua ez dela urratu; izan ere, dekretu horrek bakarrik esaten du aukera dagoela profesional mediku orokorra eta pediatria hautatzeko, bai eta lehen mailako arretako zentroa ere eta, hala badagokio, ospitalea hautatzeko.

Haren aburuz, artikulua horretan ez da aipatzen pertsona bakoitzak espezialista eta espezializazio-zentroa hautatu ahal duela dioen irizpide orokorturik. Beraz, kasu honetan ez zaio pertsonari eskubiderik urratu, zeren eta espezialitate-zentroa edo espezialista aukeratzeko askatasun hori ez baitago berez aitortuta.

Osakidetzaren aburuz, hartutako erabakia 147/2015 Dekretuaren 8 i) artikuluan xedatutakoarekin bat dator; izan ere, hurrei eta nerabeei lotutako osasun-laguntza espezifikuari buruzko atalean, honako eskubide hau biltzen da: buruko osasuneko zentroetan hurrei eta nerabeei egokitutako arretaren eta tratamenduaren beharrei erantzuteko beharrezkotzat jotzen diren baldintzak sortzeko eskubidea, haiek artatzeko langile prestatuak dituzten unitate espezializatuak sortuz eta ekipamenduz hornituz.





Gogoetak

Ekainaren 21eko 147/2015 Dekretuaren 12.2 b) artikulua ahalmen hau aitortzen die erabilitzaileei: *"b) Profesional mediku orokorra eta pediatra hautatzea, bai eta lehen mailako arretako zentroa ere, eta hala badagokio, ospitalea hautatzea, indarreko araudiarekin bat"*. Manuaren letrak ez du BOZren aldaketarik aipatzen. Hala ere, ez da nahitaez interpretatu behar aukera hori ixten duenik.

Kontsultatutako arau horren aurrekariak aztertuta, ez da ikusi legegileak eskatutako aldaketarako eskubidea mugatzeko nahia duenik. Beharbada, buruko osasunerako arretaren antolaketak, haren plangintzaren zehaztasunean eta ildo estrategikoen garapenean islatzen diren berezko ezaugarriak baititu, azalduko du zergatik ez diren BOZak berariaz aipatu.

Osakidetzaren erantzunak bi oztopo jartzen dizkio erakunde honek proposaturiko posibilitateari, hots, interesdunak hautatutako aukera aztertzeari. Batak planteatzen du ez dagoela haren eskaera kokatzeko moduko hautapen-eskubiderik; izan ere, adierazi denez, esleitutako zentroak aldaketa horiek onartuz gero nahasiko litzatekeen plangintza baten emaitza dira.

Arartekoak bere eskaeretan Osakidetzari helarazi dizkion gogoetak, funtsean, eskaera hori legitimatzen dituzten arrazoi juridikoaren ingurukoak izan dira, zeren eta nekez ezeztatu baitaitezke antolaketaren ikuspegitik BOZ aldatzeko eskaerari jarri ahal zaizkion oztopoak. Antolaketari dagokionez, adingabe horri joaten den zentroa esleitu zitzaion unean erabilitako irizpideak argudiatu dira. Hala ere, interesdunak azaldu duen moduan aldatu nahi duen zentroa hasieran esleitutakoaren ostekoa bada, ez dago zehaztuta nola eragingo liokeen antolaketari.

Hautatzeko eskubideari dagokionez, egia da 147/2015 Dekretuak ez dituela buruko osasuneko zentroak aipatzen. Dena den, erakunde hau ez dago ados Osakidetzak egindako interpretazioarekin, alegia, horregatik plangintzak hasieran esleitutakoaz bestelako zentro bat hautatzeko eskubiderik ez dagoelako azalpena. Bestalde, erakunde horren erantzunak, laguntzari lotutako arrazoiengatik eskatutako aldaketak soilik onartzen direla adierazi duenez, hain zuzen onartzen du hautatzeko eskubidea existitzen dela, baina zalantzen jartzen du arrazoa beste bat bada. Horregatik, Arartekoak uste du ukapena nekez oinarritu daitekeela BOZ aldatzeko eskubidearen estaldura-faltan.





Gogoratu behar da ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, zioen azalpenean, azpimarratzen duela osasunaren babes legaletik datozen eskubide instrumental eta osagarriak bermatu behar direla, besteak beste, zerbitzu sanitarioak aukeratzeko ahalbide zabala dagoela onartzea.

Sistema publikoaren erabiltzaileentzako aukeratzeko ahalbidea sustatzen duen printzipio hori uztailaren 21eko 147/2015 Dekretua, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen eskubideei eta betebeharreri buruzko adierazpena onartzen duena, integratu behar den antolamendu juridikokoa da. Arau horrek interesdunak xede duen nahia babesten ez duela ondorioztatuko bagenu, 8/1997 Legeak aldeztutako aukeratzeko ahalbidea baztertuko litzateke.

Esan gabe doa aldatzeko aukera onartzea ezin dela eskubide absolututzat jo. Beraz, 147/2015 Dekretuan berariaz aipatutako hautaketa-kasuetan (lehen mailako zentroa edo ospitalea) gertatzen den moduan, BOZ aldatzeko eskaerak ere baldintzatuta daude.

Eskatutako aldaketa ukatzeko arrazoiak ez luke izan behar buruko osasuneko zentroak zehatz-mehatz aipatzen ez direnik, baizik eta antolaketari edo beste alderdi bati lotutako zailtasuna dagoela eskatutako aldaketa onartzeko. Horregatik, Osakidetzaarentzako informazio-eskaeran, Arartekoak planteatu zuen eskatutako aldaketa onartzeak egungo antolaketari nola eragin diezaiokeen egiaztatuko balitz pentsa litekeela aldaketa-eskaeraren mugaketa justifikatuta dagoela. Era berean, aukera hori baldintzatuta gera liteke haur eta gazteentzako beharrezko arreta espezifikoa, kasu honetan, adingabearentzako laguntza ez balitz bermatuta egongo eskatu duen BOZn orain joaten den zentrokoen antzekoak diren baliabideez.

Zaila da alde batera uztea aipatutako kontua zentro berri bat esleitzeko eskaera baten ingurukoa dela eta interesdunak zentro hori haren egoitzaren aurrean egotean oinarritzen duela aukera. Zentro horrek baliabide berberak eskaini ezingo ez balitu, hau da, lehen mailako arretarekiko eta hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuekiko koordinazio hobea bermatu eta ziurtatu ezingo ez balu, zaila litzateke BOZ aldaketaren ukapenari oztoporik jartzea. Adingabe horren laguntza-jarraitutasuna bermatuta egoteak funtsezko elementua izan beharko luke eskatutako aldaketaren inguruan sortutako auzia ebazteko.

Ez dagokio Arartekoari administrazioaren erabaki diskrezionalak, hau da, antolaketaren esparruan duen eskumena gauzatzean hartu ahal dituenak, zalantzan jartzea. Dena den, erakunde honen ustez, kexa honetan sortutako auziaren





inguruko erabakiak, hain zuzen, antolaketari buruzko arazoietan oinarrituta egon beharko luke, ez soilik Euskadiko osasun-sisteman pertsonen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen araudiak BOZak berariaz aipatzen ez dituelako azalpenean.

Arartekoaren aburuz, aipatutako kontuaren mamia ez da benetan izan BOZe dagokienez aldatu ahal izateko eskubiderik badagoen ala ez, baizik eta zein arazoik justifikatu ahal duen, Osakidetzak pentsatu baitu arazoien artean ez dagoela hurbiltasuna. Osakidetzak azaldu du aldaketak onartu egiten direla, laguntzari lotutako arazoak badaude. Logika juridikoak pentsarazten du laguntzari lotutako arazoak daudenean BOZ aldatzeko eskaerak onartzen badira onartu egiten dela aldatzeko aukera ez dagoela baztertuta buruko osasuneko zentroak direnean.

Esan den moduan, aukeratzeko ahalbidea existitzen dela onartzeak ez du esan nahi eskubide absolututzat jotzen denik, 147/2015 Dekretuan berariaz aipatutako kasuetan ere ez baita hori gertatzen. Antolaketari buruzko arazoiek aldaketa-eskaera baldintzatu edo mugatu lezake, lehen mailako arretako zentro bat edo ospitale bat balitz, dekretu horretan berariaz aipatzen baitira, baina hurbiltasunean oinarritutako eskaerak ez lirateke zeharo baztertu behar.

Erakunde honen ustez, ukatu eta kexa hau eragin duen aukerari ez zaio aitorten juridikorik falta, Osakidetzaren erantzunek 147/2015 Dekretua aipatuz iradoki duten moduan.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau eman nahi du Arartekoak:

GOMENDIOA

Arartekoak Osakidetzari gomendatzen dio zentroa aldatzeko aukera izateko eskubidearen erabilera uka ez dezala buruko osasuneko zentroa izateagatik eta, aitzitik, ebalua dezala interesdunaren eskaerak, hurbiltasunari lotutako arazoietan oinarritutakoak, ondoriorik edukiko lukeen baliabideen plangintzari dagokionez edo haren semearen laguntza-jarraitutasuna bermatzeari dagokionez.

